

PRACTICUMEKO GIDA

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
UPV / EHU



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Arrieta Elisabet
Bullen Maggie
Huegun Asier
Maganto Juana Maria
Peña Junkal
Perez-Sostoa Virginia
Pretel Lidia
Uribe-Etxeberria Arantxa



AURKIBIDEA

1.	Planteamendu orokorra	2
1.1.	Practicumaren helburu orokorrak	2
1.2.	Gizarte Hezkuntzako Practicumeko gaitasunak	2
1.3.	Profila, eginkizunak eta balizko jarduera arloak	3
1.4.	Lanbide-deontologia	5
1.5.	Practicumaren antolakuntza-egitura Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean	5
2.	Practicuma: kredituak eta egiteko epea. Egutegiak eta ordutegiak	6
3.	Practicuma esleitzeko prozesua	7
3.1.	Aurkezpen orokorra	7
3.2.	Praktiken aurrehautapena	8
3.3.	Autopracticum	8
3.4.	Zentroa esleitzea	8
3.5.	Erreklamazioak	9
4.	Arauak	10
5.	Practicuma abian jartzea	12
5.1.	Zentroarekin harremanetan jartzea eta ikasleei deialdia egitea	12
5.2.	Practicuma hastea praktiketako zentroan	12
6.	Practicumeko tutoretza gauzatzeko prozedura	13
6.1.	Tutoretza gauzatzeko baldintzak	13
6.2.	Praktiketako zentroko instruktoreen eskubideak eta betebeharrak	13
6.3.	Fakultateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak	14
6.4.	Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	14
7.	Practicum I-en garapen metodologikoa	16
7.1.	Aurkezpena	16
7.2.	I. Blokea	17
7.3.	II. Blokea	18
8.	Practicum II-ren garapen metodologikoa	19
8.1.	Aurkezpena	19
8.2.	I. Blokea	20
8.3.	II. Blokea	21
9.	Azken Memoria	
10.	Practicumaren ebaluazioa	24
10.1.	Fakultateko tutorearen ebaluazioa	24
10.2.	Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluazioa	24
11.	Kontaktu interesgarriak	26
12.	Practicumari buruzko legedia	27

1.- PLANTEAMENDU OROKORRA

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Hezkuntza Graduko ikasketa-planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera gerturatzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko, eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

1.1.- PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK

- Ikasleen oso-osoko prestakuntza bultzatzea, haien ikaskuntza teoriko eta praktikoa osatuta.
- Lanbide-errealitatera egokitzen den lan-metodologia ezagutzen laguntzea ikasleei, eskuratutako ezaguerak kontrastatuta eta aplikatuta.
- Ikasleek gaitasun tekniko, metodologiko, pertsonal eta partaidetzakoak gara ditzaten bultzatzea.
- Ikasleek esperientzia praktikoa eskuratzeko, lan-merkatuan sartzen eta beren enplegarritasuna hobetzen laguntzeko.
- Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailtzaren balioak bultzatzea.

1.2.- GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUMEKO GAITASUNAK

• PRACTICUM I- EKO GAITASUNAK

1. Aldez aurreko trebakuntzaren edukien eta horien zehaztapen praktikoaren arteko harremana ezartzea, aurkeztu diren zentro eta praktika adierazgarrienen bidez.
2. Banakako harremanetarako eta komunikaziorako trebetasuna eskuratzeko eta agertzea lan taldean aritzeko.
3. Jarduera arloen ezaugarriak zehaztea, testuinguruan kokatzea eta alderatzea, modu orokorrean, elkarlanaren dinamikari jarraituz.
4. Lanbidearekiko jarrera etikoa eta deontologikoa izatea.
5. Gizarte-hezitzaileen lanari eta erakundeen kulturari buruzko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, idatziz zein ahoz.
6. Gizarte Hezkuntzako profesional moduan trebatu, hezkuntza ekimenetan modu burutsuan arituz.



- **PRACTICUM II ETA III-KO GAITASUNAK**

1. Gizarte hezkuntzako testuinguruetan profesionalki esku-hartu, gai ezberdinetako teoria eta praktika oinarri direla, ikuspegi etiko eta deontologia profesionala errespetatuz.
2. Hezkuntza ekintzaz arduratu, lanbidearen nortasunaren errekonozimendutik eta gizarte hezitzaileen funtzio profesionaletatik abiatuz.
3. Talde lanaren bitartez ezagupena sortu, gizarte hezkuntzaren lanbidearen izakera eta bete beharretaz aritu, ikerketa erabiliz eta praktikaren azkerketan oinarrituz.
4. Idatziz eta ahoz, eta arrazoiak erabiliz, gizarte hezitzaileen lan profesionalaren gogoetak eta erakundeen kultura ezberdinak jakinarazi.
5. Gizarte-hezitzaile ekintzak diren proiektu eta programen plangintza egin, garatu eta ebaluatu, erreferentzia diren errealitate bateko diagnostikoen ondorioak eredu izanik.
6. Proposamenak sortu, tresnak eta hezitzaileak diren lanabesak eraiki, hezitzaileak diren ibilbide, testuinguru eta baliabideak aberastu eta hobetzekotan.
7. Jakintza alor-arteko eta erakunde barneko taldeetan lanean aritzeko gaitasuna.

1.3.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK

- **PROFILA**

Gizarte Hezkuntzako graduduna gizartearen eta hezkuntzaren arloko profesionala da, eta garapen pertsonala, soziala eta komunitarioa bultzatzen duten prozesu sozio-hezitzaileak sortzen ditu. Batez ere harreman-tresnetatik abiatuta, gizarte-hezitzailearen asmoa da pertsonen, taldeen, kolektiboen eta komunitatearen bizi baldintzak hobetzea, zailtasun eta desabantaila sozial handiko egoerei adi egonda.

Gizarte-hezitzaileak honako ezaugarri hauek behar ditu: esku-hartze sozio-hezitzaile ez-formalarekiko sentikortasuna, hainbat kolektiborekin lan egiteko motibazioa (helduen eta adinekoen prestakuntza, egoera sozial ahulean dauden pertsonen gizarteratzea, animazio soziokulturala), pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna, komunikatzeko trebetasuna eta jendearekiko enpatia, pentsamendu analitiko eta kritikoa, jarrera kritikoa gizarte-gertaeren aurrean, eta parte hartzeko, lankidetzarako eta talde-lanerako interesa.

- **EGINKIZUNAK**

Profesionalak garatu beharreko eginkizunen artean honako hauek aurkitzen dira:

- Gizarte-hezkuntzazko proiektu eta programen **diseinu, garapena eta ebaluazioa.**
- Diseinatutako jarduerak **koordinatzea** eta heziketa harremanak eta gizarte sareen aldeko sormena.

- Taldeen eta baliabideen **sustapena, antolakuntza eta kudeaketa**.
- Diziplinarteko taldeetan eta lan-saioetan **parte hartzea**
- Pertsonetikiko **harremanak**: enpatia eta sentikortasuna esku-hartze sozio-hezitzaileetan.

- **BALIZKO JARDUERA ARLOAK**

Gida honetan aipatu diren lanbideratze arlo profesionalak balizkoak dira. Horrek ez du esan nahi arlo horiek bat etorri behar dutenik Fakultateko Practicumaren eskaintzarekin.

Aipatutako jarduera arloak honako multzo hauetan sailkatu dira:

1.- Hezkuntza arautua:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: bitartekaritza eta koordinazioa eskolan esku hartzen duten sareen artean. Esku-hartzea taldeekin.
- Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa: bitartekaritza eta koordinazioa eskolan esku hartzen duten sareen artean. Esku-hartzea taldeekin.
- Helduen hezkuntza: etengabeko prestakuntza. Arlo akademikokoak ez diren zeregin osagarriak, gizarteratzearekin eta aisialdi-jardurekin zerikusia dutenak.
- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak: gizarte-hezitzaileak arlo akademikokoak ez diren zeregin osagarriak izango lituzke, gazteen gizarteratzearekin zerikusia dutenak.

2.- Hezkuntza komunitarioa:

- Dinamizazio kulturantzunak
 - Kaleko heziketa
 - Familiako heziketa eta esku-hartzea
 - Esku-hartzea babes-sistemen bidez
- Esku-hartzea bilakaera-etapa eta kolektibo desberdinetan

3.- Osasuna:

- Osasun-hezkuntza Esku-hartze sozio-hezitzailea
- Esku-hartzea bilakaera-etapa eta kolektibo desberdinetan

4.- Lana eta Gizarte Gaiak:

- Gizarte eta lanerako esku-hartzea gizarte-bazterketa jasateko arriskuan



dauden pertsonekin

- Esku-hartzea etorkinekin
- Gizarte Zerbitzuak (adinekoak, Mendekotasun Legea, ijitoak, etxebizitza babestuak...)
- Esku-hartzea drogazaleekin (adizkioak)
- Garapenerako lankidetzak

5.- Espetxeak:

- Espetxeak: aisialdiaren dinamizazioa eta gizarteratzeko laguntza.

6.- Justizia Saila (Epaitegiak):

- Talde psikosozialetako gizarte-hezitzailea

7.- Ingurumen Hezkuntza

1.4.- LANBIDE DEONTOLOGIA

Etorkizuneko gizarte-hezitzaileek kasuan kasuko deontologia-kodea bete beharko duten beren jardunean, bertan ezarriko baitira lanbide horietako jardueraren eta erregulazioaren printzipioak, profesionalon jokoera bideratze aldera erantzukizun maila bakoitzean.

1.5.- HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak honako egitura hau du, Practicumari begira:

- Practicumeko dekanordea
- Practicumeko Batzordea
- Practicumeko koordinatzaileak (titulu bakoitzeko bana)
- Ikastegiko teknikaria

Antolakuntza-egitura horrek Practicumaren kudeaketa osoa bermatzen du eta era koordinatuan gauzatzen da, kasuan kasuko eginkizun eta erantzukizun espezifikoak nor bere eginda.

2.- PRACTICUMA: KREDITUAK ETA EGITEKO EPEA. EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK

Gizarte Hezkuntzako Graduko Practicuma (42 ECTS kreditu = 1.050 ordu)

3. mailan: Practicum I, 12 kreditu/300 ordu (1. lauhilekoa)

4. mailan: Practicum II eta III, 30 kreditu/750 ordu (1. eta 2. lauhilekoak)

Gizarte Hezkuntzako Graduko **Practicum I** bi bloketan gauzatuko da:

- I. Blokea: 2 kreditu/aurrez aurreko 35 ordu: Fakultatean: 2016ko irailaren 12tik 23ra.
- II. Blokea: 10 kreditu/aurrez aurreko 175 ordu: Praktiketako zentroetan: 2016ko irailaren 26tik abenduaren 23ra.

Gizarte Hezkuntzako Graduko **Practicum II eta III** bi bloketan gauzatuko da:

- I. Blokea: 2 kreditu/aurrez aurreko 35 ordu: Fakultatean: 2016ko irailaren 12tik 23ra.
- II. Blokea: 28 kreditu/aurrez aurreko 505 ordu: Praktiketako zentroetan: 2016ko irailaren 26tik 2017ko maiatzaren 12ra.

Praktiketako **ordutegiak** praktiken ezaugarrien eta erakunde-kolaboratzailearen aukeren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, praktiketako ordutegiak bateragarriak izango dira ikasleek Fakultatean dituzten jardura akademikoekin, prestakuntza-jardurekin eta ordezkaritza- eta partaidetza-jardurekin.



3.- PRACTICUMA ESLEITZEKO PROZEDURA

3.1.- AURKEZPEN OROKORRA

Urtero, martxoan, Practicum bakoitzaren informazio aurkezpen orokorra egiten da Fakultateko Areto Nagusian hurrengo ikasturtean Practicumak egiteko betebeharra duten ikasleentzat.

- Salbuespenak salbuespen, ikasleek derrigorrez joan behar dute aurkezpenera.

Aurkezpen saioaren prestaketan eta saioan bertan, honako hauek parte hartzen dute: Practicumeko dekanordeak, Practicumeko irakaslego-tutoreek, eta ikastegiko teknikariak.

- Practicumeko dekanordea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicumaren antolakuntza, fakultatearen egitura, bete beharreko epeak, ikasleei emandako informazioaren edukia, ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta, ikasketetako azkeneko mailako Practicuma egingo duten ikasleei begira, Practicuma Garapenerako Lankidetzaren Proiektuetan gauzatzeko programari buruzko informazioa.
- Practicumeko irakaslego-tutorea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicum bakoitzaren helburuak, metodologia, balizko jardura arloak eta ebaluazio-sistema...
- Ikastegiko teknikaria, azkenik, saioa antolatzeaz arduratzen da, eta Practicumaren kudeaketari buruzko informazioa osatuko du.

Gradu bakoitzeko azkeneko mailan, **Garapenerako Lankidetzaren arloan egin daiteke Practicuma**. Xede horrekin, unibertsitateko praktikak garapenerako lankidetzaren arloan egiteko laguntzen deialdia egiten duen erabakia argitaratzen du urtero UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzak.

3.2.- PRAKTIKEN AURREHAUTAPENA

Practicuma egin ahal izateko, ikasle bakoitzak GAUREko perfilan sartu behar du, "Nahitaezko Praktiken" atalean, Practicumeko aurkezpenean adierazitako epean **praktiketako zentroen aurrehautapena egiteko**.

Ikasle bakoitzak fakultateko eskaintzaren artean, **10 zentro hautatu beharko ditu**, lehentasun-hurrenkeraren arabera, honako irizpide hauek kontuan hartuta: jarduera arloa, zentro mota eta zentroaren kokaleku geografikoa.

Oso garrantzitsua da aurrehautaketa egin baino lehen interesatzen zaizkien zentroei buruzko informazioa biltzea, izan ere, aurrehautaketa amaitzen denean ezingo da aldaketarik egin.

3.3.- AUTOPRACTICUM

Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez diren zentroak proposa ditzakete ikasleek. Horretarako, GAUREn dagoen Autopracticuma atala erabili beharko dute beren kabuz bilatutako praktikei buruzko datuak sartuz.

Gainera, Autopracticuma eskatzeko orria Practicumeko bulegoan aurkeztu behar dute proposatutako zentroaren zigilua eta sinadurarekin.

Autopracticum eskaera egiteaz gain, aurrehautapena ere, egin beharko da.

Fakultateko Practicum arduradunek baloratuko dute ikasleek proposatu edo aukeratu dituzten zentroak egokiak ote diren. Beraz, ikasleek proposamen batzuk egin izanak ez du esan nahi aukera horiek automatikoki esleituko direnik.

3.4.- ZENTROA ESLEITZEA

Aurrehautapena egiteko epea amaitu ondoren, Fakultateak ezarritako irizpide orokorraren arabera esleituko dira zentroak; beraz, ikasleek beren eskaeretan proposatutako zentroak esleitzen saiatuko da Fakultatea, ahal den neurrian, eta zentroak plaza baieztatu badu.

Esleipenak egiterakoan ikaslegoak adierazitako lehentasunak kontuan hartuko dira. Lehentasunak koinziditzen direnean ikasketa espedientea erabiliko da.

Kontuan hartuko den espedientearen batz besteko nota, esleipena egiteko orduan GAUREn agertzen dena izango da.

Proposatutako aukera guztiak agortuz gero, Practicumeko Bulegoak egokia den zentro bat esleituko du.

Azkenik, aparteko kasuetan, ikaslearekin elkarrizketa egin dakioko.



Autopracticumarekin esleitzea

Ikasle batek Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez den Autopracticuma aurkeztu badu, proposamena egokia ote den aztertuko du fakultateko Practicum arduradunak, Practicumeko araudia eta plan orokorra kontuan hartuta.

Ikaslearen proposamena egokia dela erabakiz gero, fakultateak zentroarekin harremanetan jarriko da, praktiketako plan bat hitzartuko dute eta dagokion lankidetzahitzarmena izenpetuko dute.

Aldiz, ikaslearen proposamena desagokia dela erabakitzen bada, proposamena atzera botako du eta zentroa hautatzeko atalean adierazitako aukerak hartuko ditu kontuan.

Plaza guztiak esleitu ondoren, esleipena argitaratuko da, adierazitako epean, GAUREn bidez, adjudikazioen atalean.

3.5.- ERREKLAMAZIOAK

Esleitutako zentroen behin behineko zerrenda argitaratu ondoren, esleitutako zentroarekin ados ez dauden ikasleek lau laneguneko epea izango dute erreklamazioak egiteko.

Erreklamazioak eskaria ofizialaren bidez egingo dira eta Practicumeko Bulegoan aurkeztu beharko dira, eskura.

Erreklamazioak ebaztea

Erreklamazioak aztertu ondoren, behin betiko esleipenak argitaratuko dira. Une horretatik aurrera ezin izango da aldaketarik egin.

4.- ARAUAK

Practicumetan matrikulatutako ikasleek praktiketako irakasle-tutore bat izango dute Fakultatean, baita instruktore bat ere praktiketako zentroan. Tutoreek ikaslea bideratuko dute eta prozesu osoaren jarraipena egingo dute.

Ikasleak ez baditu betetzen Practicumeko betebeharrak, Practicuma ez-gaindituztat eman daiteke.

Practicuma bere osotasunean baloratzen denez, gaindituztat emateko, bertako zati guztiak gainditu beharko dira, zentroko egonaldia, fakultateko lanak eta jarraipen mintegiak,.

Practicum I gainditu ez duten ikasleek ezin izango dute, inola ere, Practicum II edo III-ko matrikula egin.

Gizarte Hezkuntzako laugarren mailako Practicumari dagokionez (Practicum II eta III), prestakuntzako continuum gisa diseinatuta dago eta balorazio orokorra egin behar da.

Gizarte Hezkuntzako Practicum I, II eta III ezin dira ikasturte berean egin, funtsezko arrazoi hauek tarteko:

- Batetik, guztizko ordu kopurua kontuan hartuta ezinezkoa delako.
- Eta bestetik, moduluak lauhilekoka antolatuta daudenez, Practicum I eta II lehenengo lauhilekoan egin beharko lirakeelako.

Practicuma enborreko irakasgai bat da, eta, beraz, errespetatu beharreko ordutegi bat dauka zehaztuta. Data aldaketa egin ahal izango da bakarrik kasu berezi eta justifikatuetan. Horretarako eskaera aztertuko da.

Data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste ikasturte edo irakasgai batzuetara hutsik egiteko.

Ikaslegoak zenbait egun edota orduetan praktiketako zentrorra joateko ezintasuna alegatzen duenean justifikazio- agiria aurkeztu beharko du bai zentroan, bai fakultatean.

Ikasleek Fakultatean garatuko den fase bakoitzeko saioen % 80ra bildu beharko dute gutxienez, jarraipen-mintegiak barne. Era berean, praktiketako zentroan egin beharreko orduen % 100 bete beharko dute, eta, hutsegiteren bat eginez gero, behar bezala justifikatu beharko dute.

Pertsona batek, lan-arrazoiak direla tarteko, practicuma ohiko moduan egin ezin badu, gainerako irakasgaietan aplikatzen den protokolo orokorrari jarraitu beharko dio; hortaz, eskari bat egin beharko dio graduko koordinatzaileari, eta laneko ordutegia adierazi beharko du bertan. Kasu horietan, tituluko koordinatzaileak jakinaren gainean jarriko ditu Practicumeko Dekanordetza eta practicumeko tutorea.



Ikasle bat fase bakoitzeko jardueren % 80 baino gutxiagora bakarrik bil badaiteke, jarraitutasunik gabe, eta behar bezala justifika badezake, tutoreari jakinarazi beharko dio, eta enpresaren sinestamendua edo ziurtagiria eta aurreikusitako egutegia aurkeztu beharko ditu.

Kasu horietan, tutoreak ordezeko jarduera bat proposatuko dio ikasleari.

Ikasle bat lanean ari bada eskuratu nahi duen tituluko praktika-zentro izan daitekeen zentro batean, zentro horretan egin ditzakete praktikak, aurretik autopracticumaren eskaria egiten badu. Horretarako, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko du autopracticumarekin batera, eta bertan adierazi beharko du enpresa horretan lan egiten duela, baita zer ordutegi duen ere.

Kasu horretan, gainera, Prestakuntza Proiektuan argi eta garbi bereizi beharko dira lanbideko eta practicumeko helburuak, eginkizunak eta edukiak.

Nolanahi ere, ikasleak praktiketako prozesu orokorrari jarraitu beharko dio (mintegiak, zereginak...).

Practicuma Sicue-Seneca mugikortasun-programaren bidez egiten ari diren ikasleei dagokienez, honako jarduera-prozedura honi jarraituko zaio:

1. Dekanotzak ikaslearen jatorrizko zentroarekin negoziatuko ditu egin beharreko kredituak eta kredituen aitortpen akademikoa.

2. Practicumeko Dekanordetzak egin beharreko orduen berri emango du, eta baita tutoreari esleitutako praktiketako zentroaren berri ere.

3. Tutoreak, egin beharreko ordu kopuruaren eta beste aldagai batzuen arabera, Prestakuntza Proiektua hitzartuko du ikaslearekin. Era berean, ikaslearekin erdietsitako akordioaren berri emango dio Practicumeko Dekanordetzari.

2010eko ekainaren 22an Fakultateko Batzarrak hartutako erabakiari jarraituz, **ikasturteko deialdi bakarra** egiten da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko tituluetakoa **Practicumetarako**. Balorazioa orokorra denez, deialdi bat gainditzen ez bada, hurrengo deialdian prozesu osoa gauzatu behar da.

Beste irakasgai bat bezela denez, Practicuma automatikoki Eskola Aseguruak babestuko du.

Dena den, **ikasleak 28 urte baino gehiago edukiz gero, ezinbestekoa izango da ikasle bakoitzak aseguru bat izatea, eskola-aseguruaren osagarri gisa**. Aseguru osagarri hori UPV/EHUK izenpetutako «CUM LAUDE» istripu-poliza kolektiboa izan daiteke, edo beste erakunde batek eskaintzen duen beste aseguruaren bat, baldin eta gutxienez, UPV/EHUREn bidez eskaintzen diren kontzeptuak («CUM LAUDE») aintzat hartzen baditu.

Practicumerako ezarritako epea gainditu izanagatik ere, ikasleek praktikak egiten jarrai dezakete. Kasu horretan, ikaslea *borondatezko praktikak* egiten ari dela esango genuke, eta horretarako, Fakultatean ezarritako baldintzak bete beharko lirateke.

Practicumak prestakuntza-izaera duenez, erakundeek edo zerbitzuek ez dute lan arloko betebeharririk izango. Bestalde, zentroek ezin izango dute Practicumeko ikasleekin lanposturik bete, ikasleak praktikak egiten ari diren bitartean.

5.- PRACTICUMA ABIAN JARTZEA

Practicum guztien programak, uztailean, Fakultateko Practicumeko web orrian argitaratzen dira. Programa bakoitzean Practicumaren hasierako eguna, ordua eta tokia zehazten dituen kronograma bana agertzen da.

Practicumak **Prestakuntza Proiektu** bat izango du, Practicuma egiten duten ikasle guztientzat balioko duena baino kasu eta zentro bakoitzera egokituko dena. Horretarako, ikasleak, zentroko instruktoreak eta Fakultateko irakasle-tutoreak ados egon beharko dute. Harreman horiek Practicumak irauten duen bitartean mantenduko dira.

5.1.- ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARTZEA ETA IKASLEEI DEIALDIA EGITEA

Adierazitako epearen baitan plazak esleitu eta zerrenda argitaratu ondoren, ikasleek jakingo dute zer zentrotan egingo dituzten praktikak, baino **ez dira zentroarekin harremanetan jarriko, Fakultateko irakasle-tutoreak harremana ezarri bitarte.**

Fakultateak zentroarekin lehen harremana izan ondoren, ikasleari bilera baterako deia egingo zaio zentrotik, eta une horretatik aurrera, Practicuma abiatuko da.

5.2.- PRACTICUMA HASTEAK PRAKTIKETAKO ZENTROAN

Fakultatean lehenengo bilera egin ondoren, ikaslea dagokion zentroarekin harremanetan jar daiteke. Zentrorra joan aurretik, tutorearekin hitzordua egin beharko du.

Praktikak hasi baino lehen, ikasle bakoitzak “XI. Eranskina” eta “Isilpekotasun-konpromisoa orria” bete beharko ditu. Dokumentu hauek Practicumeko web orrian eskuratu daitezke.

Aipatutako bi dokumentuak Practicumeko lehenengo egunean zentroko instruktoreari eskura eman behar zaizkio.



6.- PRACTICUMENKO TUTORETZA GAUZATZEKO PROZEDURA

6.1.- TUTORETZA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Practicuma egin ahal izateko, ikasleek bi tutore izango dituzte: batetik, praktiketako zentroko tutorea, eta bestetik, Fakultateko ikasketa-tutorea.

Zentroetako tutoreek baldintza hauek betetzea komeni da: profesional esperientziadunak izatea, tutoretza modu eraginkorrean gauzatzeko beharrezkoak diren ezaguerak izatea, eta ikaslea egiten ari den ikasketen maila bereko prestakuntza izatea.

6.2.- PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Praktiketako zentroko instruktoreak honako eskubide hauek izango ditu:

- Bere lankidetzat aintzat hartzeko eskubidea, dagokion ziurtagiria eginda.
- Fakultatetik kanpo egiten diren praktikak erregulatu dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Unibertsitatean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.

Era berean, praktiketako zentroko instruktorearen betebeharrak izango dira:

- Ikaslea onartzea eta, Fakultateko tutorearekin koordinatuta, ikasleak gauzatu beharreko jarduerak antolatzea; baita ikaslea praktikak egiten ari den bitartean egon daitezkeen gorabeherak komunikatzea, konpontzea eta ikaslea bertaratzen dela kontrolatzea ere.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikak bideratzea eta kontrolatzea, eta ikasleak gorabehera profesionalak dituenean, horiek konpontzen laguntzea.
- Ikasleari zentroko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea; era berean, intereseko araudia ezagutaraztea, batez ere segurtasunaren eta laneko arriskuen arlokoa.
- Ikasleei prestakuntza osagarria eta baliabide materialak ematea, praktikak egin ahal izateko.
- Ikasleei erraztasunak eta bultzada ematea, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezkeen eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.
- Bere lanbide-jardunaren edukiak azaltzea ikasleei.
- Instruktole-lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.
- Ikaslearen Practicum ebaluatzea.

6.3.- FAKULTATEKO TUTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Fakultateko tutoreak honako eskubide hauek izango ditu:

- Bere jarduera akademikoa aintzat hartzeko eskubidea, indarreko legediaren arabera.
- Praktikak erregulatzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Erakunde kolaboratzailean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Era berean, Fakultateko tutorearen betebeharrak izango dira:

- Prestakuntza Proiektua gorabeherarik gabe gauzatu dadin zaintzea, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebeharrak akademikoak, prestakuntza-betebeharrak eta ordezkaritza- eta partaidetza-betebeharrak bateragarriak izan daitezen bermatzea.
- Praktiken jarraipena egitea, erakunde kolaboratzaileko tutorearekin koordinatuta (gutxienez hiru aldiz ikasturtean zehar).
- Ikasleak praktiketako zentroan egiten dituen jarduerak edo zereginak gainbegiratzea eta bideratzea. Ikaslearen jarduera edo zereginen jarraipena egitea (gutxienez bost saio ikasturtean zehar).
- Ikasleek gogoeta egin dezaten bultzatzea eta errealitate profesional desberdinetako esperientzien eta ezagueren trukea sustatzea.
- Egunerokoa eta Azken Txostena egiteko informazioa, lan-tresnak eta gidalerroak ematea.
- Praktikak ebaluatzea, praktiketako zentzoko inktoreak egindako ebaluazioa eta ikasleak egindako balorazioa kontuan hartuta.

6.4.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Ikasleak honako eskubide hauek izango ditu Practicum egiten dituen bitartean:

- Bi tutore izateko eskubidea: batetik, unibertsitateko irakasle bat, eta bestetik, praktikak egingo dituen enpresako edo erakundeko profesional bat.
- Ebaluatzeko eskubidea, Fakultateak ezarritako irizpideen arabera.
- Praktiketako zentroak egindako ziurtagiria jasotzeko eskubidea, praktiketan egin dituen jarduerak eta praktiken iraupena berariaz adierazita.
- Dagozkion jarduera-akademikoak, prestakuntza-jarduerak eta ordezkaritza- eta partaidetza-jarduerak egiteko eskubidea, praktiketako zentroari beharrezkoa den aurrerapenez jakinarazi ondoren.



Era berean, Practicumeko ikaslearen betebeharrak izango dira:

- Fakultateko Practicumaren araudia betetzea (prozedurak, datak eta egutegiak errespetatzea).
- Praktiketako zentrorako esandako egunean joatea, tutoreekin ezarritako planean aurreikusitako ordutegia betetzea eta praktiketako zentroko funtzionamendua, segurtasun-neurriak eta laneko arriskuen prebentziorako neurriak errespetatzea.
- Praktikak egiten dituen bitartean unibertsitateko tutorearekin harremanetan egotea eta edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, eskatzen dizkioten dokumentuak eta txostenak aurkeztea, adierazitako epean eta eran.
- Zentroan dagozkion jarduerak egitea, praktiketako zentroko instruktorearen eta fakultateko tutorearen zuzendaritza, laguntza, gainbegiraketa eta aholkuei jarraituz.
- Fakultateko tutorearekin egingo diren lan-saioetara eta mintegietara joatea eta horietan parte hartzea. Saio horietara joatea derrigorrezkoa da eta, beraz, ikasleak bertaratu ezin badu, aldezturik jakinarazi beharko du.
- Practicumeko Azken Memoria egitea eta aurkeztea, ezarritako epean.
- Erakunde kolaboratzaileari buruzko informazioa isilpean gordetzea eta egin dituen jardueren gaineko lanbide-sekretua gordetzea, bai praktikak egiten ari den bitartean, bai praktikak amaitu ondoren.
- Praktiketako zentroko politika, lan-kultura eta antolakuntza errespetatzea, beti.

7.- GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM I-EN GARAPEN METODOLOGIKOA

7. 1.- AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Practicum I-ek 12 kreditu ditu, eta elkarren osagarri diren bi bloketan banatuta dago.

1.- I. Blokea: fakultatean

2 ECTS kreditu = 50 ordu: 35 ordu, aurrez aurrekoak, eta 15 ordu, bestelakoak

2.- II. Blokea: praktiketan zentroetan

10 ECTS kreditu = 250 ordu: 175 ordu, aurrez aurrekoak, eta 75 ordu, bestelakoak



7.2.- I. BLOKEA: PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA

7.2.1.- HELBURUA:

Aurretiko prestakuntzaren eduki adierazgarrienak erlazionatzea jarduera praktikoen azterketari begira, Gizarte Hezkuntzako eremu profesionaletan sakonduta; zeintzuk diren profesionalak eta zer profil duten, eta zergatik, zertarako eta nola gauzatzen duten heziketa-lana.

7.2.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:

Prozesu metodologikoa sei gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicuma aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta. Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudiari eta ikasleek bete beharreko eraranskinei buruzko aurkezpena.

2.- Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta

Ikasleek berriro ekingo diote aldez aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.

3.- Gizarte Hezkuntzako zentro, zerbitzu eta erakunde adierazgarrien aurkezpena

Zenbait hezkuntza-zentro aurkeztuko dira, ikasleek zentro horien zeregin sozio-hezitzaileari eta antolakuntzakoari buruzko informazioa eskuratu eta kontrastatu dezaten.

4.- Ikasleen adierazpenak

Laugarren mailako ikaskideek Practicumeko ikaskuntza irakaskuntza prozesuen eta ibilbidearen sintesia egingo dute, eta hala, ikasleek oinarri gehiago izango dituzte praktiketako zentroetako ibilbideari ekiteko.

5.-Tebetasun profesionalak, harremanetarako trebetasuna eta lanbide-deontologia

Ikasleek lan prozesu batean parte hartuko dute, eta bertan, harremanetarako trebetasun profesionalak landuko dira. Horretarako, funtsezkoa da Gizarte Hezkuntzako deontologia-kodea eta etika profesionala errespetatzea.

6.- Practicum I-era egokitutako metodologia-tresnen berreraikitzea

Ikasleek hainbat lantegitan parte hartuko dute, eta, horietan, praktiketako zentroari behatzeko teknikak eta haren kokatze instituzional eta administratiborako teknikak landu

daitezke, besteak beste. Era berean, egunerokoaren teknika ere landuko da, datuak biltzeko tresna den aldetik, ariketa praktikoaren bidez.

7.3.- II. BLOKEA: ZENTRO, ZERBITZU ETA ERAKUNDEETAKO EGONALDIA

7.3.1.- HELBURUA:

Bloke honetan egingo den lanaren helburua da ikaslea rol profesionalera ohitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean. Beraz, ibilbide profesionalen nola jardun daitekeen jakingo dute, testuinguru jakin batean, eta unibertsitatean eskuratutako prestakuntza teoriko eta praktikoaren edukiak kontrastatuko dituzte.

7.3.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

1.- Gizarte Hezkuntzako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan

Practicum I-eko zati honen helburua da ikasleak lehenengo harremana egitea praktiketako zentroarekin, lan-esperientzia eskuratzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleak praktiketako zentroetara joatea eta parte-hartzea.

2.- Jarraipeneko mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean

Mintegiak Practicumean parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparrua dira. Mintegietan ikaskuntza eta ezaguerak sustatzen eta sozializatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, gizarte-hezitzailearen lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.



8.- GIZARTE HEZKUNTZAKO PRACTICUM II ETA III-AREN GARAPEN METODOLOGIKOA

8. 1.- AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Practicum II eta III-ek 30 kreditu ditu. 12 Kreditu lehenengo lauhilabetean eta 18 bigarren lauhilabetean, hurrenez hurren.

Practicum bakar bat bezala ulertzen da eta elkarren osagarri diren bi bloketan banatuta dago.

1.- I. Blokea: fakultatean

2 ECTS kreditu = 50 ordu: 35 ordu, aurrez aurrekoak, eta 15 ordu, bestelakoak

2.- II. Blokea: praktiketako zentroetan

28 ECTS kreditu = 700 ordu: 505 ordu, aurrez aurrekoak, eta 195 ordu, bestelakoak

8.2.- I. BLOKEA: PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA

8.2.1.- HELBURUA:

Ikaslea laugarren mailako practicumean kokatzea, prestakuntza-aldi horretako prestakuntza-jardueretan eta -zereginetan izan dezakeen teilakapena bideratzea, eta praktiketako prozesua kokatzeko eta aztertzeko egokiak diren ikaskuntza-tresnak zehazten laguntzea.

8.2.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:

Tituluko laugarren mailako practicumak oinarri izan behar dituen alderdi teorikoak, testuinguruarenak, instrumentalak eta bizipenenak zehaztea du xede. Metodologia aktiboen bidez ekingo zaie aurretiko esperientzia berrikusteari, praktikak egingo diren erakundeen esparruetan aldeztu aurretik kokatzeari, eta horretarako funtsezko alderdi teoriko-praktikoei.

Prozesu metodologikoa bost gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicum II eta III aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta. Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudiari eta ikasleek bete beharreko eraranskinei buruzko aurkezpena.

2.- Aukeren azterketa eta doikuntza

Taldearen esparruan, ikasleek aldeztu aurretik detektatu dituzten aukerak aurkeztuko eta aztertuko dira, eta, banaka, laugarren mailako practicumetik espero dutena eta espero dezaketena berrikusiko eta pentsatuko dira.

3.- Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta

Ikasleek berriro ekingo diote aldeztu aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.

4.- Praktiketako zentrorako gaitasun eta trebetasun profesionalak

Ikasleek hezkuntzako esku-hartzea eta rol profesionalaren garapena bultzatzera bideratutako gaitasun profesionaleri buruzko lan-prozesu batean parte hartuko dute.



5.- Practicum II eta III-ra egokitutako metodologia-tresnen berreraikitzea

Ikasleek hainbat lantegitan parte hartuko dute, eta, horietan, aribidean dauden programak aztertzeko eta/edo ebaluatzeko teknikak eta diseinu-proposamenen plangintza landu daitezke, besteak beste.

8.3.- II. BLOKEA: ZENTRO, ZERBITZU ETA ERAKUNDEETAKO EGONALDIA

8.3.1.- HELBURUA:

Bloke honetan egin beharreko lanaren bidez bultzatuko da: batetik, ikasleak bere rol profesionala eraikitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean; eta, bestetik, ikaslea **profesional bezala trebatzea, zuzeneko esku-hartzearen bidez.**

8.3.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

1.- Gizarte Hezkuntzako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan

Practicum II eta III-aren zati hau hasierako harreman- eta behaketa-fasea gainditu ondoren ikasleak esku-hartze profesionalean integratzeko moduan antolatuta dago, tituluko profilak berezko dituen gaitasunak gara ditzaten.

2.- Jarraipen-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean

Mintegiak practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparrua dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren Prestakuntza Proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-, ekoizpen- eta komunikazio-guneak dira. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Gizarte Hezkuntzako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen.

Honako hauek dira intereseko gaietako batzuk: jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua hezkuntza-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abian jartzea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua hezkuntzan, gizarte- eta lan-esparruko baldintzak, prestakuntza-beharren proiektzioa.

9.- AZKEN MEMORIA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharrak idatziko ditu eguneroko batean.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

1. Ikaslearen datu pertsonalak
2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analisisa
 - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jardura arloa erregulatzen duen araudia.
 - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.
3. Praktika prozesua
 - Gizarte Hezkuntzako profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, trebetasunak eta jarrera pertsonalak.
 - Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion gaitasunak erantsiz.
 - Praktika programaren diseinua eta erantzukizun maila. Prestakuntza Proiektua: programaren helburuak, dedikazioa, bere gain hartu dituen eginkizunak. Metodologia: jardura programa, estrategiak eta baliabideak.
4. Practicumeko prozesuan kokatuta dagoen esku-hartze jardueren eta/edo proiektu/programen azterketa, honako fase hauek adierazita: (*Practicum II eta III*)
 - Kontuan hartu beharreko beharrak: lehentasunen ezarpena.
 - Proiektu/programaren funtsatzea. Proiektuaren kokapena, baliabideen aurreikuspena eta hartzaileak.
 - Ezarpen- eta ebaluazio-prozedura
 - Hobetzeko proposamenak
5. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala



- Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ikaskuntzaren emaitzak.
- Practicumeko lantaldea: mintegietan eta praktiketako zentroan. Ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.
- Profesionalizazioa: rol profesionala, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua, lanbideko gizarte- eta lan-baldintzak, autopertzepzio profesionala.
- Practicumaren balioespen orokorra, norberaren bizipenetan oinarrituta.

10.- PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egiterakoan hurrengo bi atalak izango dira kontuan. Batetik, Fakultatean egindako lana dago, eta bestetik, praktiketako zentroan egindako lana. Fakultatean egindako lanari dagokionez, Practicum lean 5 puntu bitarte esleituko zaio bai fakultatean antolatutako ekintzetarako asistentziari eta parte hartzeari, bai azken txostenari. Practicum II-IIIan berriz, 2,5 puntu bitarte esleituko zaio aurkeztu behar duten dokumentazioari eta ikasleak egindako ibilbideari eta beste 2,5 puntu bitarte azken txostenari.

Azken nota bi atal horien baloraziotik aterako da, %50ean. Practicuma gainditzeko, bi atalak gainditu beharko dira nahitaez.

10.1.- FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako elementu hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Aldez aurretik fakultatean ezarritako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta parte hartzea.
- Trebetasun sozialak izatea kideekin mintzatzeko eta erlazionatzeko.
- Jardun profesionalerako estrategiak eta prozedurak erabiltzea eta garatzea.
- Practicumeko Azken Txostena: ebaluazio irizpideak
 - o Txostenaren irizpideei eta egiturari egokitzapena: argitasuna eta koherentzia datuen aurkezpenean. Agiriaren idazkera unibertsitate mailari egokituko da.
 - o Zehaztasuna, zorroztasuna eta argitasuna txostenaren aurkezpenean eta argudiaketan. Lanbideari dagokion hiztegi zuzenaren erabilera.
 - o Analisiaren sakontze maila eta burututako praktikei buruzko gogoeta.
 - o Gizarte Hezkuntzako rolaerakiko konprometzua garatutako lan eremuan. Ikasketen zehar landutako prestakuntza akademiko-zientifiko esparruan, profil profesionalaren inguruko analisisia eta gogoeta.

10.2.- PRAKTIKETAKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldez aurretik jasoko du, eta bete ondoren, fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako elementu hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Praktiketako ordu guztiak egin izana aldez aurretik erabakitako egutegiaren eta



ordutegiaren arabera.

- Jardueren betetze maila, ardura, adierazitako gaitasuna, jakin-mina, jarrera arduratsua eta gogoetatsua izatea.
- Elkarlanean aritzea, profesional-taldeen esparruan, inizatiba.
- Ebaluazio orriaren betetzea.

11.- KONTAKTU INTERESGARRIAK

Practicumeko dekanordea:

Elisabet Arrieta elisabet.arrieta@ehu.es 943 015496

Ikastegiko teknikaria:

Lidia Pretel practicum.fice@ehu.es 943 015562



12.- PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA

Practicumari dagokionez, indarrean dagoen legedia honako hau da:

- *1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituena.*
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>.
- *Ikasleen Kanpoko Praktika akademikoen araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuta.*
http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado
- *(2004) Gizarte Hezkuntzako Deontologia Kodea. Toledo.*
<http://www.eduso.net/red/codigo.htm>